

Memoria hutsez beteta

Maixa Zugastik 36ko gerra eta erbestea oinarri dituen eleberrri bat idatzi du, 'Ahotsak eta itzalak' • Memoria historikoaren argi-ilunak landu ditu

Maidar Galardi F. Agirre Donostia

Historia eta istorioak berreraikitzen dabilenak sarri egiten du topo kontakizuna osatu nahi duten lagunekin. Isiltasuna eta hutsuneak ere izaten dira, ordea, esan nahi eta ezin diren pasarte horiek itzalean ezkutatzeko. Minak, ahanzturak eta transmisio ezak sortzen dituzte memoriaren zuloak. Eta hain justu horietan murgildu da Maixa Zugastik *Ahotsak eta itzalak* bere bigarren eleberrria osatzeko (Tolosa, Gipuzkoa, 1973). 36ko gerran erbestera joan behar izan zuten bi anaiaren eta haien aitaren istorioa kontatzen du idazleak, muga, gerra, memoria... ardatz hartuta. Gaia gaurko ikuspegitik landu du, esaten denak baino isiltzen denak garrantzi handiagoa duen nobela batean.

Eleberriko protagonista nagusia Luis da, 36ko gerra piztu aurretik erbestera doan gazte bat. Aita eta anaiarekin muga pasatu, eta Sarziniako egoitza diplomatiko batean hartzen dute babes. Ama eta arrebak txikia, berriz, jatorrizko herrian gelditzen dira gerrak iraun bitartean. Sarziniatik ere egin beharko dute ihes gertakari lazgarri batengatik, eta urteak eman beharko dituzte tokiz aldatzen. «Erbesteko herri hori fikziozkoa da, baina badu esanahi garrantzitsua. Sarziniaren erro-matarrek leku batetik bestera joatean gauean zeramaten zama piztu hori», nabarmendu du Zugastik. Alegia, ihesean aritzearen zama islatu nahi izan du idazleak liburuan.

Gerraren saminaz gain, bada etengabe agertzen den beste gai bat ere. Memoria historikoaren berreraikuntzaren argi-ilunak landu ditu autoreak, eta gaur egunetik heldu dio gaiari: «Gizarte guztiarentzat eta bereziki gazteentzat garrantzitsua da gaia mahai gainetzeraz». Istorioan, hortaz, bilakaera egin du Zugastik. Luis haurrak, heldua denean, eleberrri bat idatzi nahiko du gertatu zaiona kontatzeko. Horretarako, hainbat testigantza bildu, eta «egia» osatzen ahaleginduko da. Baina, memoriaren zuloetan barrera murgilduta, itzal eta isiltasun asko topatuko ditu Luisak, eta ez du lortuko istorio eta historia osoa jostea.

Edonola ere, Zugastiren arabera, helburua ez da izan eleberrri historiko bat osatzea: «Fikziozkoak dira lekuak, pertsonaiak eta istorioa bera». Egin du historiaren kontaketa inguruko gogoeta ere: «Historia nork idazten duen gauza bat da. Baina jende xumeak jasaten ditu egoera latzak. Pertsona horien istorio bat osatu nahi izan dut». Hala ere, 36ko gerran erbestera joandako hainbat lagun testigantzetan oinarritu da eleberrria idazteko.

Idazketa prozesu luzea

Dokumentazio lan handia egin du idazleak, eta, horregatik, patxadaz hartu du eleberrria idazteko lana. «Hasierako ideia lantzen orain 18 urte hasi nintzen, eta guztira hamar pasatu ditut istorioari bueltaka», azaldu du.



Historia nork idazten duen gauza bat da. Baina jende xumeak jasaten ditu egoera latzak. Istorio hori osatu dut.

Maixa Zugastik
Idazlea

Egindako lanagatik «heldutasuna» nabari zaila azpimarratu du Inazio Mujika Erein argitaletxeko editoreak. Zugastik ere aitortu du asko irakurri duela nobela osatzeko, eta bereziki aipatu ditu Jose Migel Barandiaranen dokumentu batzuk: «Aita Barandiaranek erbestera joan behar izan zuen gerra garaian, eta lan oso garrantzitsua egin zuen: 136 testigantza jaso zituen guztira».

Zugastik liburua argitaratu duela baliatu du Barandiaranek egindako lanari balioa emateko: «Sekulako altxorra da. Helduen testigantzez gain, haurrenak ere jasotzen ditu». Horregatik, omenaldia egin nahi izan dio antropologoari, eta liburuan protagonista bat ageri da Barandiaranen istorio antzekoa duena: Aita Basarte da hori. Bestela, ez dago erraz identifikatu daitekeen pertsonaia edo lekurik, nahiz eta aitortu duen argia dela Ipar Euskal Herriko herriren batean girotuta dagoela istorioa.

Beraz, kontaktuz konkretua

bai, baina asmoa auzi unibertsal bat jorratzea dela azpimarratu du Mujikak. Idazleak gaia gazteei transmititzeko beharra nabarmendu du: «Garai lotsagarriak izan ziren, eta garai lotsagarriak dira oraingoak ere. 65 milioi lagun daude ihesean gaur egun».

Ofizios, irakaslea da Zugastik, eta ahalegintzen da ikasleekin memoriaren inguruko gaiak jorratzen. Joan den irailan, Kutxa Irun saria jaso zuen L.A.A nobelarekin, eta, ordutik, irakasle eta idazle lanak uztartzen ari da.



Maixa Zugastik *Ahotsak eta itzalak* eleberrria argitaratu du. JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

DANTZA

BORIS CHARMATZ

MUSÉE DE LA DANSE
10000 GESTES

Koreografia eta Zuzendaritza
Boris Charmatz

APIRILAK 27, 28

KONTZERTUA

TOSTA

APIRILAK 29

www.teatroarriaga.eus

Bilbao Babestek EL CORREO Deia Bizkaia bbk SEIZ Ipeem FCC I.M.Q. mardogan Lingua